

**OÑATIKO UDALAREN ETA JOSE DE AZPIAZU MUSIKA ESKOLAREN
ARTEKO DIRULAGUNTZA HITZARMENA
“TXISTUAREN TRANSMISIOA, EUSKAL INSTRUMENTU TRADIZIONALA”**

Oñatin, sinadura digitalean aurkezturiko datan, bi alde hauek **BATU** dira:

Batetik, IZARO ELORZA ARREGUI andrea, Oñatiko Udaleko alkatea, Udal korporazioaren izenean (NAN: **3963**G / Helbide Soziala: Oñatiko Foruen Enparantza1).

Bestetik, ARITZ FERNANDEZ ARAMBURUZABALA jauna (NAN: **7251**Y / Helbidea: Ugarkalde 21 C), Jose de Azpiazu Musika Eskolako lehendakaria, Musika eskolaren izenean).

Bi aldeek hitzarmen hau egiteko nahikoa gaitasun aitortu diote elkarri eta honako hau

ADIERAZTEN DUTE :

Lehena: “Jose de Azpiazu Musika Eskola” irabazi asmorik gabeko kultur elkarte da, nortasun propioa duen erakundea, 1988ko ekainaren 20an sortua. Bere xedea da musika-kultura herri mailan hedatzea, musika-irakaskuntzarako ikastegi baten gestio eta promozioaren bidez.

Bigarrena: Oñatiko Udalaren helburuetariko bat kultura bultzatzea da, eta horren barruan toki berezia du musika-kulturak. Euskal instrumentu tradizionalen sustapenak eta trasmisioak leku berezia duelarik.

Hirugarrena: Oñatiko Udalaren eta Jose de Azpiazu Musika Eskolaren arteko lau urtetako (2026-2029) lankidetzaren proposamena, onartzea, “Txistuaren transmisioa, Euskal Instrumentu tradizionala” proiektutik eratorritako gastuen finantziazioan laguntzeko eta lau urtetarako kreditu konprometitua “onartzea”.

Laugarrena: Jose de Azpiazu Musika Eskolak Gorritxitxi eraikineko espazio baten erabilera utziko dio txistulari elkarteari hitzarmena gauzatu ahal izateko. Eraikina udalarena da eta Musika eskolak alokairuan du.

Bosgarrena: Azaroaren 17ko 38/2003 Legearen 28. artikulua dirulaguntzak zuzenean emateko prozedura arautzen du. Bertan xedatzen da hitzarmenak izango direla aurrekontuetan izenez aurreikusitako dirulaguntzak bideratzeko ohiko tresna.

Indarrean dagoen toki legedian zein dirulaguntzen Legean, erakunde pribatuekin elkarlanerako hitzarmenaren figura aurreikusten da, giza intereseko jarduerak sustatzeko xedearekin.

Hori dela eta, hitzarmen honen helburua zera da: "Txistuaren transmisioa, euskal instrumentu tradizionala" izeneko proiektua garatzeko Oñatiko Udalak Jose de Azpiazu Musika Eskolari emango dion dirulaguntza arautzea.

KLAUSULAK

Lehenengoa: *Xedea*

1.- Oñatiko Jose de Azpiazu Musika Eskolak, hitzarmenak irauten duen denboran, Udalaren Gorritxitxi eraikinean tokia bermatzea Elkarteari proiektua gauzatzeko.

2.- Hitzarmen honen helburua Oñatiko Udalaren eta Jose de Azpiazu Musika Eskolaren arteko lankidetzaren modu iraunkorrean ezartzea da, bai dirulaguntzei dagokienez, bai bi aldeen arteko harremanei dagokienez, betiere Oñatin Txistuaren transmisioa bultzatu eta bermatzeko xedearekin.

Bigarrena: *Hitzarmenaren iraupena.*

Hitzarmenak lau (4) urteko iraupena izango du (2026-2029), sinatzen den unetik kontatzen hasita.

Hirugarrena: *Dirulaguntzak.*

Oñatiko Udalak Oñatiko "Txistuaren transmisioa, Euskal Instrumentu Tradizionala" proiektuko gastuei aurre egiteko dirulaguntza zuzen eta izenduna bidezko dirulaguntza emango du.

Dirulaguntzaren zenbatekoa, urteko, hogehita bederatzi mila berrehun eta laurogehi eurokoa (29.280€) izango da, eta lau (4) urteko iraupena izango du, hitzarmen honen indarraldiarekin bat etorritik (2026-2029).

Horrenbestez, izaera plurianualeko (4 urte) gastua ezartzen da, gehienez 87.840€ko kreditu konprometitua onartzen delarik.

Urtez urteko banaketa honako hau izango da:

.-2026ko ekitaldiko ordainketa kreditua: 29.280€

Hitzarmen honen xede den dirulaguntzarako, kreditu egokia eta nahikoa ezarri da 2026 urteko Udal aurrekontuetan. Dirulaguntza 0800.481.326.00.01.343.2026-Musika Eskolari dirulaguntza- partidaren kontura eta haren lotura-mailaren arabera ordainduko da.

.-2027ko ekitaldia: 29.280€

.-2028ko ekitaldia: 29.280€

.-2029ko ekitaldia: 29.280€

.-Guztira 2027tik 2029ko ekitaldietarako kreditu konprometitua: 87,840€

Hitzarmen honen etorkizuneko ekitaldietako dirulaguntzak baldintzatuta geratzen dira urte horietako aurrekontuetan nahiko kreditu zuzkitzera.

“Txistuaren transmisioa, Euskal Instrumentu Tradizionala” proiektuko gastuei aurre egiteko diru-kopurua urtero aldatu daiteke aldez aurretik egindako gastu-proposamenaren arabera eta Udalaren egoera ekonomikoaren arabera; nolana ere, igotzea erabakiko balitz, igoera KPlaren arabera egingo litzateke; beste igoerarik onartuko ez duelarik.

Dirulaguntzaren ordainketa honela egingo da:

Lehenengo zatia, %60a, laugarren klausulako 5-a ataleko memoria aurkezten duenean. Eta bigarren zatia, %40a, laugarren klausulako 5-b/c ataletako jarduera-txostena aurkezten duenean.

Laugarrena: *Jose de Azpiazu Musika Eskolaren betebeharrak*

Txistuaren transmisioa bultzatu eta bermatzeko gauzatuko diren ekimenak zehaztea. Agendari dagokionez, edozein ekitaldi moldagarria izango da egun edo une horretan beste zerbait berezia ospatzen delako.

Ekitaldi horietan, proiektuaren arduradunaren arabera txistua jotzeko gaitasuna duen edozein herritarrek parte hartu ahal du. Beharrezkoa den kasuetan entseguak edo birziklitzeko klaseak jasoko dituzte txistulariek.

1.- *Goizeresiak, kontzertuak eta dantzarako doinuak.*



OÑATI dabilen herria

- *Goizeresiak:* Aste Santutik urrira bitartean, hamabostean behin, herriko zenbait kale eta auzoetan tartekatuz. 10 goizerezi.
- Kontzertuak: Eguedietan 4 kontzertu.
- Dantzarako 5 emanaldi, arratsaldekoak.

2.- *Herriko dantza-taldearen beharrei erantzutea.* Unean uneko dantzari-taldearekin zehaztu beharko da agenda.

- Inauteriak.
- Oñatiko Haurren Eguna.
- Bailarako lau Haurren Egunetan parte hartzea.
- Korpus jaietako asteburua.
- Helduen ekitaldiak. Bi dantza-saio Oñatitik kanpo.
- San Migel jaiekin lotutako ekitaldia.

San Juan bezperako ekitaldia, dantzariak parte hartzen badute.

- Jubilatuen Eguna.
- Bailarako Dantzari Eguna.

3.- *Oñatiko Udalaren konpromisoei erantzutea.*

- San Migel jaietako ekitaldietan protokoloari erantzunez beste eragileen eskariz etorri daitezkeenak, Artzain-txakurren lehiaketako agurra esaterako.
- Herri Eguneko kalejira eta bazkalostekoa.
- Arantzazuko Amaren eguna.
- San Martin astean, bertako egoitzan parte hartzea.



OÑATI

dabilen herria

- Sortu daitezkeen bestelako protokoloak. Egun berezietako ospakizunak, inaugurazioak, autoritateei agurrak...
- Oñatiko Udalak hirugarren entitate baten eskariari erantzunez eman beharreko arreta (Eusko Jaurlaritza, Foru Aldundia, Unibertsitateak, herriko beste eragileen ekitaldi bereziak...).

4.- Bestelako eragile edo norbanakoen emanaldiak

- Beste herri batzuetako eragileen bitartez etor daitezkeen aurreikusi gabeko eskariak Jose De Azpiazu Musika Eskolak aztertu eta erabakiko ditu.
- Hitzarmen honetatik kanpo geratzen dira partikularren beharrei erantzuteko jaso daitezkeen eskariak (ezkontzak, omenaldiak, enpresetako ekitaldiak...).

5.- Baliabide material, instrumentu, partitura, arropa, sonorizazio edo bestelako beharrak dirulaguntza honetan jasotzen dira. Beraz, udalak ez du helburu horietarako beste dirulaguntza gehigarririk emango.

6.- Dirulaguntzari dagokionez:

Aurreikusitako xedeak bete izana egiaztatu beharko du Musika Eskolak, honako dokumentu hauen bidea.

a.- Urteko ekintzak jasotzen dituen memoria.

b.- Abenduaren 1a baino lehen, dirulaguntza ematean jarritako baldintzak bete direla egiaztatzen duen jarduera-txostena, gauzatutako jarduerak eta lortutako emaitzak zehaztuz.

c.- Abenduaren 1a baino lehen, gauzatutako jardueren kostua edo gastuak nahiz sarrerak egiaztatzeko txosten ekonomikoa, honako hauek jasoko dituen:

1.- Gastuen eta sarreren zerrendak hitzarmenaren xedearekin loturikoak izan beharko dute.

2.- Hori egiaztatzen duten faktura edo egiaztagiria eta ordainketa egin deneko agiria.

3.- Jarduerak finantzatzeko jasotako beste sarrera edo dirulaguntzen zerrenda, bakoitzaren zenbatekoa eta jatorria adieraziz.

4.- Erabili gabeko soberakinik balego, itzuli denaren agiria eta soberakin horietatik jasotako interesena.

Musika Eskola urteko diru-kontuen ikuskaritza edo auditoria egitera behartua badago edo/eta Udalak edo beste Administrazio batek hala eskatzen badio, elkarteak derrigorrez jarri beharko ditu ikuskariaren esku dirulaguntzen Lege Orokorraren 14.1.f artikulua arabera eska dakizkiokeen liburu, erregistro edo agiri guztiak.

Era berean, Udalak eta kontrol-organoek egiaztapen- eta diru-kontrolako aktuzioak egin ahal izango dituzte, eta eskolak eskatzen zaion beste argibide emango ditu.

Musika Eskolak, hitzarmena sinatu aurretik, zerga eta Gizarte Segurantzako obligazioei dagokienez egunean dagoela egiaztatu behar du.

Musika Eskolak, hitzarmena sinatu aurretik, legez eska daitezkeen erantzukizun zibileko aseguru-polizak badituela egiaztatuko du.

Bosgarrena: *Udalaren betebeharrak:*

Oñatiko Udalak aurrekontuetan urtero finkatuko du **"TXISTUAREN TRANSMISIOA, EUSKAL INSTRUMENTU TRADIZIONALA"** proiektuari emango dion dirulaguntza. Gaur-gaurkoz proiektu hau Jose de Azpiazu Musika Eskolarekin gauzatzen den hitzarmenean jasotzen da.

Seigarrena: *Hitzarmenaren Jarraipenerako Batzordea*

Jarraipen-batzorde bat eratuko da, helburuak behar bezala bete direla egiaztatzeko. Honako pertsona hauek osatuko dute batzordea: Oñatiko alkatea edo haren ordezkotza zinegotzia eta Jose de Azpiazu Musika Eskolako lehendakaria edo "Txistuaren transmisioa, euskal instrumentu tradizionala" proiekturako izendatutako arduraduna.

Hitzarmenaren sinatzaileetako batek hala eskatuta, beste pertsona batzuk ere joan ahal izango dira Jarraipen Batzordeko bileretara, gai zerrendan dagoen gairen baten gaineko iritzi tekniko edo profesionala emateko.

Jarraipen batzordea gutxienez urtean behin bilduko da; eta Udalaren aurrekontuen prestaketa- prozesuak irauten duen bitartean.

Halaber, bi aldeetako batek Jarraipen Batzordearen bilera bat eskatzen badu, eskatzen denetik hamabost egun igaro baino lehen egingo da bilera.

Zazpigarrena: Hitzarmenarekin zerikusia duen guztirako lan-hizkuntza euskara izango da ahozko nahiz idatzizko harremanetan, bai Udalarekin eta baita gainontzeko herriko eragileekin ere.

Eta hitzartutako guztia behar bezala jasota gera dadin izenpetzen da kontratu hau sinadura digitalean agertzen den datan,

Izaro Elorza Arregi, Alkatea. Aritz Fernandez Aramburuzabala, lehendakaria.



Sinaduren laburpena / Resumen de firmas

Titulua / Título:

Txistularien hitzarmena (2026-2029)

CSV/EKS:

SINAc801aae-1021-4397-9af7-7e8b090c5882